



Ebazpena, Hezkuntzako Sailburuordearena, gradu ertaineko kirol ikaskuntzetako Futbol, Aretu Futbol, Piraguismo, Atletismo, Salbamendu-Sorospena, Saskibaloi eta Eskubaloi espezialitateetarako, 2019ko abenduaren 9ko Ebazpenak ezartzen dituen izena emateko datak aldatzen duena. 2020-2021 ikasturtea.

Hezkuntzako Sailburuordearen 2019ko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez, araubide bereziko Kirol Teknikariaren eta Goi-mailako Kirol Teknikariaren titulazio ofizialak eskuratzera daramaten ikaskuntzetan sarbidea izateko berariazko probak deitu ziren.

Ebazpen horretako Zortzigarren ataleko 2. Puntuan ezartzen da Sarbide-probetan izena emateko epeak bere I. ERANSKINEAN adierazitakoak direla. Futbol, Aretu Futbol, Piraguismo, Atletismo, Salbamendu-Sorospena, Saskibaloi eta Eskubaloi espezialitateetarako izena emateko epea 2020ko maiatzaren 6tik 27ra arte biak barne eta irailaren 1etik 15era arte biak barne dela ezartzen da.

COVID-19 koronabirusak eragindako osasun larrialdiko egoerari aurre egiteko, beharrezkoa da goian aipatutako espezialitateetako izena emateko epeak luzatzea. Guzti honen ondorioz,

EBAZTEN DUT,

Lehenena.- Hezkuntzako Sailburuordearen 2019ko abenduaren 9ko Ebazpenean ezarritako izena ematerako epeak, Futbol, Aretu Futbol, Piraguismo, Atletismo, Salbamendu-Sorospena, Saskibaloi eta Eskubaloi espezialitateetarako, 2020ko maiatzaren 6tik ekainaren 12ra arte biak barne eta irailaren 1etik 15era arte biak barne izango dira.

Bigarrena.- Proben ordutegiak eta tokiak CPED KIROLENE KIIP ikastetxeko iragarki oholean eta bere web-gunean (<http://www.kirolene.hezkuntza.net>) argitaratuko dira aurretiaz.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 6an
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

IZP.: Maite Alonso Arana